

# Karteroarenak

## IRUTXULO

Donostiako Astekaria

Tfnoak: (943) 429593  
(943) 426807  
Faxa: (943) 431190  
E-mail: txulo@euskalnet.net

**Irutxulo:** San Joan 14, 20003 Donostia.  
**Argitaratzailea:** Donostiako Komunikabideak E.M., San Joan 14, 20003 Donostia.  
**Erredakzioa:** Alberto Irazu, Alex Aisa, Ainhoa Irazu.  
**Tfnoak:** (943) 429593 / (943) 426807.  
**Faxa:** (943) 431190.  
**e-mail:** bagera@euskalnet.net / b.e.e@euskalnet.net  
**Diseinua:** Aitor Hernandez.  
**Maketazioa:** Eneko Abrego.  
**Publizitate arduradunak:** Maria Albillos, Jon Uzquidun, Jone Iribar.  
**Tfnoak:** (943) 429593 / (943) 426807.  
**Kudeaketa eta harpidetak:** Amaia Makazaga.  
**Argazkilaria:** Imanol Otegi.  
**Korrespondentak:** Raul Perez (kirola), Aitor Navarro (Intxaurren), Alex Aisa (Igeldo), Lierni Otamendi (Añorga), Leire Balda (Loiola), Aitziber Gunzteaga (Egia), Elixabete Belaustegi (Gros-Ulía), Asier Larrañaga (Amara Berri), Eva Monente (Amara Zaharra), Gurutze Jauregi (Parte Zaharra), Iker Marin (Aiete), Inaki Okariz (Erdialdea), Erika Erkizia (Antigua), eta Larraitz Garmendia (Aliza eta Herrera-Bidebieta).  
**Kolaboratzaileak:** Karlos Irazu, Karlos Lozano, Mattin, Sergio Basurko, R. Elorza, Aitzpea Goenaga, Harkaitz Cano, Karolina Sainz de Vicuña, Xabier Zaldúa, Felipe Juaristi, Xabier Otaegi, Ainhoa Etxebeste, Ainhoa Beola, Martin Aramendi, Joseba Ramirez, Mikel Agoues, Inaki Iturain, Ander Hormazauri, Kike Diez de Ultzurrun, Mikel Reparaz, Franck Dolosor eta Aitor Zuberogotia.  
**Erredakzio kontseilua:** Luis Fernandez, Inaki Iturain, Aranbxa Kaltzada, Marije Manterola, Josu Landa, Ederne Otamendi, Jone Dorronsoro, Ander Usabiaga, Alex Aisa eta Alberto Irazu.  
**Tirada:** 5.000 ale. **Inprimategia:** Antza.  
**Lege gordailua:** SS-246/94 ISSN: 1134-0517.  
**Copyright:** IRUTXULO Donostiako Astekaria.

IRUTXULO ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen ekimenez egina

San Joan 14

(Sarrera Aldamar kaletik)

20003 - DONOSTIA

Tfnoa: (943) 43 12 28. Faxa: (943) 43 11 90  
e-mail: bagera@euskalnet.net  
b.e.e@euskalnet.net

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Eusko Jaureritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentua



Donostiako Euskararen Udal Patronatua

## Gai librean

# Gay harrotasuna

**d**atorren ekainaren 28an Gay Harrotasuna deituriko eguna ospatzen da, orientazio homosexuala duten gizon eta emakumeentzat askatasuna, berdintasuna eta duintasuna erreibindikatzeko. Batzuentzat modatan omen dago homosexualitatea, gero eta gehiago entzuten edo ikusten direlako horri lotutako zirkunstantziak. Baina gertatzen ari dena hauxe da: denbora luzez, errepresio medio, gizarte-katakunbetan gordeta egon ondoren, azken urteetan pixkanaka, oraindik izua azalean duela, burua ateratzen ari da homosexualitatea mendeetako gordelekuetatik. Ondorioz, pertsonaia eta gizon emakume homosexualak hasi dira agertzen komunikabide eta filmeetan, baina oraindik errealitatean dagoen portzentaia-rra urrutitik ere iritsi gabe.

Iñigo Lamarca



Harrotasun hitzak ez du, inola ere,

nagusitasun zentzurik, baidarik eta estimu propioa aldarrikatzeko xedez erabiltzen da. Horren kaltetuta eta izorratuta utzi die heterosexismoaren arau absolutuak beren autoestimua gay eta lesbiana gehienei, ezen horri buelta eman nahian aldarrikapen irmo eta sendoa egin nahi izan baitu mugimendu homosexualak amodioa eta sexualitatea sentitzeko orduan

desberdinak diren gizon-emakumeen alde. Diferentzia onartzea eta errespetatzea guztion zeregina da. Hartaz, heterosexualei ere dagokien kontua da gay eta lesbien eskubideak defendatzea. Helburu horrekin elkartasun festa apartekoa antolatu da Donostian, San Telmo museoarenean plazan, ekainaren 17an, arratsaldeko seietan, Tirri Tarra taldearen ikuskizun bikaina eskainiko delarik.

Zatoz gurekin!



## Kultur etxe berria dela eta

**Z**uzendari Jauna: IRUTXULOren 266. zenbakian Auzoz Auzoko Intxaurrendoko kronikan, "Kultur etxe berria zabaldu gabe" lelopean argitaratu zenuten artikuluko zenbait iritzi eta esanekin nire ez adostasuna azaldu nahi dizuet. Izan ere, guztiontzat hain onuragarriak izan daitezkeen iritzien artean badira bertan aipatzen diren bi puntu edo ideia nire ustez okerrak direnak.

Alde batetik, artikulua- ren hasieran aipatzen dena ez da

batere zuzena eta asmakizun hutsean oinarritutako iritzia dirudi. Zer dela eta "honezkero zabalik egon beharko luke" Txara II-ko kultur etxeak? Donostiako Kultur Udal Patronatuko planifikazioaren arabera, 2000ko udazkenerarte ez zegoen aurrikusia kultur etxe berria irekitzea. Lanak diharduten martxan iraila eta urria bitartean irekitzeko asmoarekin jarraitzen dugu, beraz, eta inaugurazioari dagokionez, ez dugu espero inolako atzerapenik.

Bestalde, ez nator bat Intxaurren auzo elkarteko presidentek auzotik auzora kexa batekin: proiektu honi buruz ez zaiela informazio gehiegi eman, alegia. Ulertzen dut iritziak iritzi direla, baina ez dut uste bidezkoa denik horrelako arintasunez halako azalpen bat

egitea hiriko komunikabide batean. Izan ere, eta datuak oker ez badauzkat, gutxienez bi izan ziren Donostiako Udal Patronatuko teknikari eta auzo elkarteetako partaideak bildu zituzten bilerak eta horietan argi eta garbi azaldu zitzaizkiren une bakoitzeko informazioa. Ez noa hemen neurtzera emandako informazioa nahikoa ala urria izan zen baina bai argi utzi nahi nuke denok dakiguna: Larrotxene Kultur Etxeak, beti izan ditu atean zabalik auzotarrek eskatzen duten edozein azalpen edo informazio eskaerei erantzuteko. Beraz, eta norbait informazio faltan badago, ez dauka guregana hurbildu eta informazioa eskatzea baino, daukaguna konpartitzeko prest baikaude.

**Jon Etxezarraga.**

Larrotxene kultur etxe-ko arduraduna